



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte Zerbitzuak
Servicios Sociales

Semealabak

Getxoko Gurasoen Eskolako aldizkaria • Urtarrila 2008 • 18. ZK



Egunerokoa

Joan den egunean aitak esaten zidan etxera iristerakoan giro alai eta lasaia aurkitzea gustatuko litzaiokeela, baina bera afalorduan etortzen da, eta bost minutu baino gutxiago pasa direnean oihuka edo bestela egin dudana zerbaitek aurpegiatzen ari zait. Atzo, duela bi egun karpeta sarreran aurkitu zuelako izan zen, pasilloan jauziak egiten ikusi ninduenean. Gaur bertan, lasai geunden Olentzeroren oparietaz hitz egiten. Bera iritsi bezain laster bakea amaitu da.

Zer egiten du berak hobeto egon gaitezten?

Aitziberrek eta nik eztabaida ugari izaten ditugulako kezatzen dira. Uste dute ez dakigula amore ematen, adostasunetara iristen, beti arrazoia izan nahi dugula.

Baina, noiz lortu ahal izan dute adostasuna aitarekin? Oso gutxitan. Normalean ez dute kontuan hartzen atsegin dudana ala gustatuko litzaidakeena. Beti arrazoia izan nahi dute ala gehiago dakitela garbi geratzea. Aitziberrekin txikiak ginenetik izaten ditut eztabaidak, baina ia beti ondo amaitu izaten dira. Gure arteko harremanaren izaera da.

Gainera beraiek gauza bera egiten dute. Oihu dezente eginez eztabaidatzen dute. Eta batzuetan, hitz oso bortitzak erabiltzen dituzte.

Badakit ulertzea zaila gertatzen dela, baina nik berari etetea atsegin ez duen bezala, nik ere ez. Aspaldidanik ezer esan gabe hitz egiten uzten diot. Entzun egiten diot. Berak nirekin gauza bera egitea gustatuko litzaidake.

Badakit nire portaeraren inguruan asko duela esateko, baina beraiek gauza bera egiten dute. Laurok elkarbizitzara gauza onak eta txarrak ekartzen ditugu. Baina, gainerakoek ekartzen dituzten gauza txarrak azpimarratu beharrean, bakoitzak egiten dugunari begiratu beharko genioke, aldatzen saiatzeko, ezta?





Familiako elkarbizitza...

Familia, definizioaren arabera, gizarteratzen ikasteko elkarbizitarako gunea izango litzateke. Honen barnean, seme-alabek komunikaziorako, harremanerako eta sentimenduen adierazpenerako moduak praktikatu dituzte. Halaber elkarbizitarako oinarritzko moduak eta hau positiboa izateko beharrezko balioen garapena ikasiko dute.

Kide bakoitzaren ezberdintasunak kontuan izanik elkarbizitarako oinarritzko gunea dela azpimarratu behar da. Adinarekin, sexuarekin nahiz bere kideen iritziekin lotutako diferentzia hauek, diferentziekin eta hauei esker bizitzen ikastea legokeela adierazten dute.

Ez daude bi familia berdin

Diferentzia horiek familia talde baten ezaugarriak izateaz gainera familia guztiek bere artean izango litzuketena izango liriteke. Ez daude bi familia berdin, eta kasu orotan ez dute metodo berdinek balio izaten. Diferentzia ere familien arteko oinarritzko ezaugarri berezilea izango litzateke.

Horrenbestez, beste pertsona bat eskubide berdinak dituen eta berdina den gizakia izatearen ideiatik abiatuko gara. Hori adina, sexua, botere-maila

ala ahultasun maila alde batera utzita ulertuko litzateke. Berdinak dira, abiapuntu bezala, gurasoak eta seme-alabak. Merezki duten errespetua berdina da.

Sozializatzea eta elkarbizitza

Seme-alaben heziketak kontuan izan beharreko bi alderdi garrantzitsu hartuko litzuzke barne. Lehenengoa garapen fisikoarekin lotuta legoke, ondorioz, beharrezkoa denean bere beharrik estali beharko genituzke. Bigarrena pertsona autonomo eta independente bezala gizarteratzen erakustea izango litzateke. Bigarren maila honetan sozializatzea eta elkarbizitza izango genituzke.

Sozializatzea familian nahiz gizar-tean mugitzeko eta elkarbizitarako prestatzea litzateke. Halaber, sozializazioaren bidez seme-alabengan mundua ikusteko modu zehatza, balio, arau eta sinesmenen sistema bat ezartzea lortuko da. Nolabait, gurasoek gertaerak ulertzeko, gertakizun garrantzitsuen aurrean erreaktionatzeko, besteekin harremanak antolatzeke ala iragana ulertzeko nahiz etorkizunari begiratzeko bere modua irakasten dute.

Sozializatzerakoan pertsona helduen papera funtsezkoa gertatuko

da eta, bitxia bada ere, nahi gabe ala zuzenean bilatu gabeko moduan gauzak da. Seme-alabek gugandik ikasten duten gauza ugari ez da jakinaren gainean irakatsi izaten. Esaten dugunetik eratorritzen diren jarrerak eta balioak bereganatzen dituzte, baina batez ere egiten dugunetik eta nola egiten dugunetik eratorritakoak. Nola begiraten dugun, hitz egiterakoan zer egiten dugun, nola entzuten ala eteten dugun. Horiek guztiak "barneratzen" joango diren jarrerak izango dira.

Familia bakoitzean botere-harremanak, diferentziak, saritzeko ala zigortzeko moduak, hitzarmenak ezartzeko nahiz gatazkek konpontze-koak modu zehatzetan gauzatu izaten dira. Horrenbestez, seme-alabek gauza onak eta txarrak, desiragarriak nahiz errefusagarriak, baimendutakoak ala debekatutakoak barne litzuzkeen mundua ulertzeko eta honetan zehar mugitzeko bere moduak eskuratu eta garatuko dituzte.

Lanbide-bizitza

Seme-alaben etorkizunaren inguruko gogoeta egiterakoan, arreta ia beti bere lanbide-bizitza nolakoa izango ote denaren inguruan soilik jarri izaten dela esan ahal da. Horregatik batzue-

tan ikasketak nola daramatzaten soilik hartzen dugu kontuan, informatika, hizkuntzak ala bere nota akademikoen inguruko gaitasunak neurtzeko ahaleginean. Honek pertsonen inguruko ikuspegi partziala eskaintzen digu, bere ekoizpenaren alderdia soilik hautemanez eta edozein pertsonaren garapenerako nahiz bizitzarako auzi garrantzitsuak alde batera utziaz.

Hala ere ez dugu ahaztu behar elkarbitza ez dela familian soilik ikasten. Haurtzaroan nahiz nerabetsunean zehar banatzen, erantzukizunak bere gain hartzen eta gatazkak konpontzen ikasten dute bai ikastetxean eta bai aisialdian. Halaber bere bizitzan garrantzi berezia duten beste heldu batzuek ikasten dute esaterako irakasleria, zeinekin ordu asko emango baitituzte.

Bere beharrak eta kezkek adierazko gaitasuna, iritziak banatzea eta eragiten dituzten auzien inguruan erabakiak hartzen ikastea garrantzitsua izango da. Honek familian eta eguneroko elkarbizitzaren bidez autonomia eta independentziaren garapenerako ezinbestekoak diren jarrerak lantzeko beharra eskatuko du. Afektua eta sentimenduen adierazpena, porrotak jasateko gaitasuna, atsekabeari nahiz estresari aurre egiteko baliabideak, bere sinesmenak mantentzeko ahal-

mena eta beharrezkoa denean jarrera aldatzeko malgutasuna izango lirateke. Jarrera hauek guztiak, funtsean bere gurasoak imitatuz ikasten dituzte.

Mailakako prozesua

Ikaskuntza hau mailakakoa izaten dela azpimarratzea garrantzitsua da. Ez dugu espero behar adin jakin batera iritsi izanagatik zentzudunak, arduratsuak eta ulerkorak izatea. Autonomia eta independentzia, bizitzaren lehenengo unetatik abiatuta, denboran zehar pixkanaka eratu izaten dira.

Eta etxetik kanpo ere ikasten dela egia bada ere, ezin dugu pentsatu lankidetzaren eta elkarbizitzarekin lotutako hainbat ohitura eta jarrera etxetik kanpo ikasiko direnik. Modu positiboan adieraztea eta entzutea, besteak berdinak balira bezala ikustea eta besteak nahiz bere iritziak errespetatzeko gai izatea barneratu beharko dira.

Familian, guraso eta seme-alabekin, belaunaldien arteko harremana gauzatzen da zein halaber, aitona-amonak bertan daudenean, hirugarren belaunaldiarekin hedatuko baita. Hau litzateke elkarbizitzarako eta batez ere, tolerantzia ikasteko esparru ezin hobea.

Tolerantzia diferentziak onartzea eta irizpideak ez inposatzea izango litzateke; horregatik, garrantzitsua izango da berdintasunean oinarritu-

tako familia-arauak eratzea eta eskubi-deak nahiz betebeharrak zein diren oso garbi izatea.

Familiako tolerantzia ez da hainbeste islatuko erabaki garrantzitsuetan, egunerokotasuneko ildoak finkatuko duten xehetasun eta gatazka txikietan baizik. Adibidez, familiako kide bakoitzaren izaera eta nortasuna onartzea baina aldi berean hitzartutako konpromisoekiko errespetua, onarpena eta betetzea eskatzea.

Bestalde eta hezitzailea ereduak izaten dela kontuan izanik, bikotearen arteko ala seme-alabengana zuzendutako oihu, irain, ahozko indarkeria nahiz fisikoak tolerantziarik eza eta errespeturik eza agerian jarriko dute; egoera etorkizunerako larriagotu egin ahal izango da, estereotipoak indartzen dituzten sexuen araberako jarraiek barne hartzen badira.

Laburbilduz, seme-alabek bere gurasoak imitatuz familatik kanpo harremanetan erabiliko duten elkarbizitzarako ereduak ikasiko dute. Garrantzitsua da irakasten zaien elkarbizitzareduaren kontzientzia hartzea eta modu positiboan harremana izateko hala nola autonomiarekin eta independentziarekin hazteko kaltegarriak liratekeen zure jarrera zehatzen eraginaren edota eredu negatiboa zein neurritan eskaintzen denaren kontzientzia hartzea.

Irakurriz ikastea ...

« Técnicas de Hacker para padres »
Monsoriu, Mar . Ed. Copyright. (13 € gutx.)

Batetik gure seme-alaben ezagutza informatikoek eragiten duten kezkaren aurrean eta bestetik, guk horiek ez ditugunaz jabetzearen ondorioz, telebistan ikusten ditugun eta aldizkarietan irakurtzen ditugun arriskuak kontuan izanik, liburu hau eratu da.

Gurasoentzat balagarria izan nahi du eta ordenagailua programatzeko baliabideak dakartza, horrela, bere seme-alabek hura ordutegi egoki baten barnean soilik erabili dezaten; Interneterako sarbidea mugatzea; ordenagailuan zein programa instalatzen diren adieraztea; bisitatzen dituzten Web orrialdeak gainbegiratzea...

Guraso ugari kezkatuta daude bere seme-alabek ordenagailuarekin nahiz telefono mugikorarekin egiten duten erabileraren ezagutze ez dutelako. Hoberena berarekin hitz egitea izango litzateke, baina komunikaziorik ez dagoenean, geratzen den aukera bakarra benetako Hackeretan bihurtzea izango litzateke, bere seme-alaben ahultasunak hautematen eta horietatik babesten saiatzeko, Internet eta teknologia berriak behar bezala erabiltzen lagunduko eta irakatsiko dieten bitartean.

Edozein kasutan beraian izaten den konfiantza eta merezi duten intimitatea neurtzen jakin beharko litzateke, behar

bezalako kontrolarekin Interneterako sarbideak zenbat aldiz, noiz eta nola egin beharko direnari dagokionez.





Getxoko Gurasoen Eskola

- Ikastaroen iraupena hiru, lau edo bost ekitaldietakoa da.
- Adierazitako eguna lehen ekitaldiko da.
- Ateko eguna eta ordutegia bera izango dira ikastaroa irauten dute aste gustietan.
- Ez dago alde zuzenik izena eman behar. Nahikoa da lehen egunean bertara joatearekin, adierazitako ikastetxean.
- Edozein arrazoiengatik lehen egunean joaterik ez bazenu, ondoko ekitaldietan egin dezakezu.
- Zure seme-alabak ikastetxe horretakoak ez badira, eta ezagutzen ez baduzu, atezaindegira edo Guraso Elkartetara jo ezazu, ekitaldiak non egiten diren esan diezazuten.
- Julio Caro Barojak BHI-k eta Fadura BHI-k antolatutako ikastaroa Algortako kultura-Aretoa ospatuko da
- Zubilletas E.P.-n antolatutako ikastaroa eskusiboki bi eta sei urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako izango da
- Jarduerak doanekoak dira.
- Lehen egunean gutxienez hamabi (12) pertsona agertzen ez badira, bigarren aldiz saiatuko da, eta horren ondoren, parte hartzailearen gutxieneko kopurua betetzen ez bada, bertan behera geldituko da. Zuen alderdi horretan daukazuen beste aukeren gaineko informazioa jakinaraziko zaizue. Garrantzitsua da lehen egunean bertaratzea.

Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu. **94 466 01 30**

Ikastaroen Egutegia: Urtarrila - Maiatza 2008

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA	ORDUA
urtarrila	Trinitarias	Familiako komunikazioa hobetuz	urtarrilak 14 astelehena	19:00
	IES Julio Caro Baroja Algortako Kultura-Aretoa	Inteligentzia emozionala	urtarrilak 16 asteazkena	19:00
otsaila	Divina Pastora	Familiako komunikazioa hobetuz	otsailak 18 astelehena	9:00
	Larrañazubi	Sexualitatearen inguruan	otsailak 20 asteazkena	9:00
apirila	IES Aixerrota	Inteligentzia emozionala	apirilak 7 astelehena	19:00
	CP Geroa	Estresa bideratzea eta kontrol pertsonala (2)	apirilak 9 asteazkena	15:00
	IES Artaza	Drogen inguruan	apirilak 10 osteguna	19:00
maiatza	Azkorri	Familiako komunikazioa hobetuz	maiatzak 12 astelehena	19:00
	Europa	Inteligentzia emozionala	maiatzak 13 asteartea	19:00
	Zubilletas	Familiako arau eta mugen ezarpena	maiatzak 14 asteazkena	9:00
	CP Romo	Drogen inguruan	maiatzak 15 osteguna	15:00